



## Plateruena eta gero, zer?

Durango herriko talde bat Plateruena kudeatzeko "proiektu berri bat garatzen dabil" Durango Udalari aurkezteko asmoz. Lan saio parte hartzaile deitu dute otsailaren 6rako. • 25

**PLATERUENA**  
TA GERO  
ZER?

PLATERUENA



## Zornotza, itxialdian

Zornotzak pandemiaren eremu gorrian hasi du astea. Itxialdi perimetrala dago ezarrita eta ostalaritzak ateak zarratu behar izan ditu berriro ere. Ostalariak egoerari zelan aurre egin jakin ezinda dabilta • 4

### Erabateko adostasun politikoa herri galdeketa bide orria marrazteko

**Durango I** Durango udalbatza osatzen duten alderdiek elkarrekin egiteko dute tren geltokiari buruzko galdeketa egin arteko bidea. Herri galdeketa martxoaren 14an egingo da. • 6



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**  
**CEPA DURANGO HHI**  
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzeritarrentzako gaztelania ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak
- Informatika eta ingeles ikastaroak.



**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
www.epadurango.hezkuntza.net

**MATRIKULA-EPEA:**  
Urtarrilaren 27tik Otsailaren 4ra  
Matrikula egiteko ordutegia: Asteleheneetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00  
Ostiraletan: 09:00-13:00





## Ederra eta piztia

Denboraleak aspaldiko elurterik handiena ekarri du Durangaldeko mendietara. Aisialdirako ezohiko eszenatokiak hainbat arrisku gune ere ekarri du

### ELURTEA • ANBOTO

Filomena. Izen hori ipini diote. Eta badirudi asmatu dutela, zeren ospea behintzat hartu du. Egundokoa. Aspaldian ez da tamaina honetako elurterik egon gure herrialdean. Elur-malutak apenas ukitu dute kalerik, baina mendian bai, mendian barra-barra bota du, meteorologia kontuetan adituak direnak ere harrizteraino.

Durangaldeko mendiak soineko zuriz jantzita ibili diren honetan, herritar askok etxetik gertu topatu dute normalean urutiagoko bazterretan egoten den elurra. Durangalde maite. Ikusi ditugu herritarrak mendi txangoak egiten, Urkiola inguruko aldatsetan lerekin jolasten, elurretako panpinak egiten. Ikusi ditugu herritarrak argazkiak hartzen, ezohiko irudi hau betiketzen. Eta ikusi ditugu herritarrak etxeko

epeltasunean, leihotik kukuka dabilen mendi zuriari begietara begiratzen.

Horiek denak elurteak ekarritako une gogoangarriak izan dira, baina txanpon guztiek alde bi dituztenez, denborale honek egoera arriskutsuak ere ekarri ditu. Trabakua mendateko errepidean arazoak izan ziren elur-ekaitzaren lehenengo orduetan. Eta herritar bat ez atzera ez aurrera geratu zen joan zen asteburuan Anboto mendian. Larrialdi zerbitzuek onik erreskatatu zuten, gaua sartuta. Lehenago, urtarrilaren 6an, beste mendizale batzuek abisua emanda zuten Anboto mendiaren inguruan elur-jausiak egon zirela.

Elurra gogotik bota eta gero, Filomenak tenperatura hotzei eutsiko die orain. Euskalmetek tenperatura jaitsiera bat aurreikusi du asteburu honetarako.

### "Anbotoko erreskatea ondo amaitu zen arren, konplikatua izan zen"



MIKEL  
LOPETEGI

**Ertzaintzaren erreskate-unitateko kidea**

**Mikel Lopetegi (Donostia, 1977) Ertzaintzaren mendi-erreskate-tarako unitateko kidea da. Hainbat erreskateetan parte hartu du egunotan. lurretan dute operazio basea.**

**Denboralea dela-eta, gora egin du erreskateen kopuruak?**

Bai, igoera igarri dugu. Ezohiko kondizioak egon dira. Elur mordo bota du eta horri gehitu behar zaio konfinamenduaren eraginez herritarrak gauzak egiteko gogo gehiagoz egon direla. Faktore horiek guztiek bat egin dutela esango nuke.

**Eta erreskateen zailtasunak?**

Bai, orokorrean zaildu egin dira. Adibidez, joan den aste-

buruan Anboton egin genuen erreskatea ondo amaitu zen, baina itxura txar-txarra zuen. Kondizioak oso konplikatuak ziren. Gorbeian eduki ditugun erreskateak ere gaxak izan dira.

**Lasaiegi joaten ote gara mendira? Mendiarekiko errespetua galtzen ote dugu batzuetan?**

Ezin da orokortu, baina kasu batzuetan bai. Negu honetan, adibidez, jendea zapatiletan atera dugu Gorbeiatik. Hori ez da normala. Dena dela, gehien ikusi ditugun erreskateak ondo prestatutako herritarrenak izan dira. Anboton erreskatatu genuena prestatuta zihoan.

**Zein aholku emango zenieke herritarrei mendira badoaz?**

Ardura berezia ipini dezatela hipotermian. Dena aldatu dezake. Ondo tapatuta joan, eta tapaki termiko bat hartu. Komunikazioa ere funtsezkoa da. Operatiboa asko errazten digu. Mugikorra beti kargatuta. Eta ordezko bateria bat eramatea ere komenigarria da, hotzagaitik atoan agortzen da eta.



# Elurretara joandakoek txarto aparkatutako kotxeek zailtasunak sortu zituzten Otxandion eta Durangaldeko beste leku batzuetan

Auto asko edozein lekutan aparkatuta egon dira Urkiolan eta Oizera bidean; Otxandion aparkalekuak egokitu zituzten

## DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Joan zen asteko elurteek gozamerako tartea eskaini zuten arren, zailtasunez betetako egunak izan ziren hainbat lekutan. Otxandion, esate baterako, oso tenperatura baxuak izan zituzten. Horrelako egoeretan, Otxandionko Babes Zibileko Taldea martxan ipintzen da. Hamar bat boluntariok osatzen dute taldea. Gatza bota eta elurra kentzeko makinak martxan ipini zituzten. Herrigunea nahiko ondo egon zen arren, elurraz gozatzera joan zen jendeagaz kanpoaldean zailtasunak izan zituztela azaldu du Endika Garate boluntarioak. Garatek 12 urte daramatza lan horretan. "Orain

arte ez dugu halakorik ikusi. Landetan kotxeak aparkatuta, hesiak kenduta...", esan du. Laguntza taldekoak trafikoa bideratzen ibili ziren. Gainera, udalak aparkalekuak egokitu zituen. Urkiolara eta beste leku batzuetara sarbidea zarratu zuten, jendea Otxandiora joan zela azaldu du Egoitz Garmendia alka-

**Endika Garate: "Orain arte ez dugu halakorik ikusi. Kotxeak landetan, hesiak kenduta..."**

teak. "Elurragaz, jendea betidanik joan izan da soro jakin batzuetara, baina aurreko astekoa larregikoa izan da. Horregaitik, pentsatu genuen ulergarria zela jendeak etorri gura izatea. Gainera, eskubidea dute mendira joateko eta elurraz gozatzeko. Baina ahalegindu ginen jendea bideratzen eta informatzen. Garmendiak dioenez, Ertzaintzara deitu zuten, trafikoa bideratzen euren ibili zirela azaltzeko. "Ez dute baliabiderik puntu guztietan egoteko, eta horregaitik gu geu antolatuta ginen", gaineratu du Garatek.

Durangaldeko beste puntu batzuetan ere kotxe pilaketek arazoak sortu zituzten. Oizera bidean zein Urkiolan, askok txarto aparkatuta utzi zuten autoa eta oztupoak sortu ziren.



OTXANDIOKO UDALA.



OTXANDIOKO UDALA.



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)

**IURRETA Tellitu-n**

3 logelatako 6 etxebizitza  
2 logelatako 11 etxebizitza  
Garajea eta trastelekua barne





Zornotzako Zezilia Gallartzaigoitia kalea.

## Herria eremu gorrian, ostalaritza alarma gorrian

Zornotza eremu gorrian sartu da. Itxialdi perimetrala ezarri dute eta ostalaritzak ateak itxi behar izan ditu beste behin ere

### ZORNOTZA • ANBOTO

Beste itxialdi bat eta beste kolpe bat. Zornotzarrentzat gehienbat. Eta, bereziki, alde aurretik ahul egondako ostalari zornotzarrentzat. Astea abiatzeagaz batera, udalerrria pandemiaren eremu gorrian sartu zen eta ostalariek ateak zarratu behar izan zituzten hurrengo orduetan, Eusko Jaurlaritzak hala aginduta.

Orain aste batzuk atzean utzitako egoera berri ere errepikatzen ari denez, ostalariak egoerari nondik heldu ezinda dabilta. "Gure negozioan dena dugu: hotela, jatetxea eta taberna. Baina hotelera ezin da kanpoko inor etorri eta bertako herritarrek ez dute tabernara etortzeko aukerarik. Alde guztietatik kolpatzen ari zaizkigun sentipena dut". Reinier Gonzalezek iazko uztaillean hartu zuen Harrison hotelaren ardura. Sei langilek lan egiten dute han, eta Gonzalezek kezka handiz bizi du negozioaren egoera.

Harrison hotela herriaren erdi-

gunean dago. Zelaieta parketik oso hur, Eta handik ez oso urruti, bada Zornotzan kotsakratutako beste

“

**20:30etik 21:30era topera ibili gaitzke, baina egunean zehar ez dago mugimendurik”**

IRAIDE ALBERDI. Venezia pizzeria

negozio bat: Venezia pizzeria. Han ere halamoduz dabilta egoerari eusten. Pizzeria izanik, etxera eramateko jatekoan ipini behar izan dute indar guztia negozioa aurrera ateratzeko. "Oraintxe bertan hiru behargin gaude lanean, baina gutxi dira", azaldu du bertako Iraide Alberdi arduradunak. Asteburuetan izaten dute mugimendurik handiena. "20:30etik 21:30era

topera ibili gaitzke. Eskari guztiak batera etortzen zaizkigu. Baina gero, egunean zehar, ez dago mugimendurik", dio. Dena dela, Alberdik aitortu du bere egoera beste batzuen baina apur bat erosoagoa dela. Lokala familiarena denez, ez du errentarik ordaindu behar.

Harrison hotelaren egoera bestelakoa da. Instituzioek eskaintako diru laguntzei erreparatu die Reinier Gonzalezek. "Bateko zein besteko erakundeek diru laguntzak eskatu ditut. Hiruzpalau hilabete joan dira eta oraindino ez zaigu dirurik heldu. Urgentziaz kaleratutako diru laguntzak

“

**Alde guztietatik kolpatzen ari zaizkigun sentipena daukat”**

REINIER GONZALEZ. Harrison hotela

badaude, ez dut ulertzen zelan tardatu dezaketen hainbeste. Izan ere, hor beste kontu bat ere badago. Diru laguntzek klausula bat dute. Horren arabera, dirua jaso eta sei hilabetera negozioa zarratzen baduzu, dirua bueltatu behar duzu. Baina, jakina, nik beharrezana momentu honetan badut, eta laguntzak lau hilabete barru ematen badizkidazu, beharbada laguntza ailegatzen denerako negozioa zarratu beharrean egongo naiz", kexatu da. Puntu honetan aipagarriak dira Zornotzako Udalak ostalarientzat kaleratutako diru laguntzak. 200.000 euroko diru poltsa prestatu zuen iaz, eta 84 negoziok egin dituzte eskariak. Dagoeneko, udalak eskarietako 87.000 euro pagatu ditu.

Oraingoz, Zornotza izan da eremu gorrira bueltatu den eskualdeko herri bakarra, baina ikusteko dago zein bide hartuko duen gainerako herrien egoerak. Jaurlaritzaren esanetan, pandemiaren bilakaera "kezagarria" da.

## Zenbakiak

1

**104**

**Ostalaritza negozioak.**

Zornotzako Udalaren esanetan, ostalaritzari lotutako 104 negozio daude udalerrian. Tabernak, jatetxeak eta hotelak daude zenbaki horren atzean.

2

**84**

**Udalaren diru laguntza eskatu duten ostalaritza negozioak.**

84 negoziok diru laguntza eskaria erregistratu zuten iaz, udal iturrien esanetan.

3

**87.000**

**Udalak ostalariei emandako diru laguntza.**

Udala laguntza eskariak ematen hasi da. 87.000 euro pagatu ditu dagoeneko.

4

**19.290**

**Biztanleria, 2020an.**

Eustaten arabera datua. Udalerrian itxialdi perimetrala dago ezarrita eta Zornotzako herritarrek mugatuta dute sartu-irtena.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2021eko urtarrilaren 15a  
19. urtea - 834. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Zaldibarko baheketa masiboko datuak oraindino ezagutarazi ez diren arren, herritarren parte hartzeagaz pozik daude

Joan den asteburuan, Osasun Saitetik baheketa masiboa egiteko deialdia zabaldu ostean, milaka PCR proba egin zituzten Zaldibarko liburutegian atondutako gunean

**ZALDIBAR** • A.M. / M.Z.

Oraindino ez dira ezagutarazi joan den asteburuan Zaldibarren egindako baheketa masiboko datuak. Hala ere, Osasun Sailak egunero publikatzen duen txostenaren arabera, Zaldibarren bederatzi koronabirus kasu berri atzeman dituzte urtarrilaren 10etik 12ra bitartean. 6 urtetik gorako zaldibartarrak zeuden deituta PCR proba egitera. Urtarrilaren 8ko 16:00etan ekin zioten probak egiteari, eta Osakidetza langileak asteburu osoan egon ziren liburutegian. 1.200 zaldibartarrek baino gehiagok

eskatu zuten hitzordua aurretiaz, bertako iturrien arabera.

**Nagusien eta aniztasun funtzionaltako egoitzetako langileei PCR probak egin dizkiete**

**PCRak egoitzetako langileei** Durangaldeko nagusien egoitzetako eta aniztasun funtzionalen bat duten pertsonen zentroetako langileei PCR probak egiten hasi ziren atzo Durangon. 756 profesionali deitu zieten.



Baheketa Zaldibarko liburutegian egin zuten.

## Matienako ikastetxean hamar gradutara egon ziren astelehenean

**ABADIÑO** • ARITZ MALDONADO

Astelehenean Matienako ikastetxean 600 ikasle eta langile baino gehiago berogailurik barik egon zirela salatu zuen Abadiñoko EH Bilduk. "Zenbait gelatan 10 gradu baino ez dira egon. Koronabirusa dela-eta, aireztatu egin behar dira ikasgelak, eta kontuan hartu behar da kanpoko tenperatura oso baxua izan dela egunotan", adierazi zuten alderdi subiranistako kideek prentsa ohar baten bitartez.

EH Bilduren esanetan, astelehenekoa ez zen "kasu isolatu" bat

izan. "Berotze-sistemagaz arazo estrukturalak daude. Eraikinak egin ahala hoditeriaren sekzio desberdinetan ipini ziren zirkuitu hidraulikoak, galdarak hasieratik eman ditu arazoak, kontrol telematikoko sistemak arazoak ematen ditu...", azaldu du alderdi subiranistak.

Arazoa konpondu ahal izateko, "proiektu bat idatzi eta garatu" behar dela gaineratu du EH Bilduk, eta, horretarako, Hezkuntza Sailaren Udalguntza programako diru laguntzak baliatzeko proposatu dio koalizioak udal gobernari.



**Aurrematrikula zabalik!  
Urtarrilaren 18tik 29ra**

.....  
**Eskatu hitz ordua,  
zure zain gaude.!**

**Zure kuttuna Gure altxorra**



**SAN ANTONIO**  
IKASTETXEA  
Irakasleon Kooperatiba

Tel: 94 681 67 76 ikastetxea@sanantonio.eus [www.sanantonio.eus](http://www.sanantonio.eus)



# Durangoko Udalak lau faseko prozesua aurkeztu du trenbidearen galdeketan herritarren parte-hartzea sustatzeko

Martxoaren 14ko herri galdeketa egin ahal izateko pausoak zehaztu dituzte; batez ere informazioa helarazi gura diete herritar guztiei. "Gure ustez, ezinbestekoa da durangarrak jakinaren gainean ipintzea, kontzienteki eta datu guztiak mahai gainean dituztela bozkatu ahal izateko", azaldu dute Durangoko udal ordezkariak



Durangoko Udaleko alderdi guztietako ordezkariak parte-hartzea sustatzeko prozesuaren aurkezpenean.

## DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko Udalak martxoaren 14an egingo den trenbidearen inguruko galdeketan herritarren parte-hartzea sustatzeko prozesua aurkeztu du. Horrela, herrian lehenengo egingo den galdeketa faseak diseinatu dituzte. Prozesu horrek

lau fase izango ditu eta Durangoko Udaleko ordezkariak proiektuaren eta kontsultaren ezaugarriak azaltzen ahaleginduko dira.

Udalak azaldu duenez, "zalan-tzan ipintzen den trenaren lur zaharren proiektuari buruzko informazio guztia helarazi gura

diegu durangar guztiei. Gure ustez, ezinbestekoa da durangarrak jakinaren gainean egotea, kontzienteki eta datu guztiak mahai gainean dituztela bozkatu ahal izateko. Udal hau, erakunde lez, ez da inongo aukeraren alde edo kontra agertuko, parte-hartzea sustatzera mugatuko

da", azaldu dute Durangoko udaleko ordezkariak.

Lehenengo fasean (dagoeneko martxan dago), udaleko langileek proiektuaren aurrekariak eta kontsultako erantzun biek izan ditza-keten ondorioei buruzko informazio guztia bildu dute.

Bigarren fasean, udala herriko eragile sozialekin biltzen hasiko da, batutako informazioa helarazteko eta kontsultaren prozesu osoa azaltzeko.

Hirugarren fasean, udalak herritar guztiei zuzendutako informazio kanpaina bat egingo du, eta, saio zabalaren bitartez, trenbidearen inguruko proiektuaren berri emango du. Hirugarren fase honetarako, hainbat bilera aurrekusi dituzte

## Durangoko Udalak herritar guztiei zuzendutako informazio kanpaina bat egingo du

herriko hainbat gunetan eta baita Interneten bitartez ere.

Azken fasea hauteskunde kanpaina bera izango da, Durangon egiten diren hauteskundeetan erabiltzen diren mekanismo bereberekin. "Alde horretatik, boto aukera guztiek aukera berdina izango dituztela ziurtatuko du udalak", azaldu dute udal ordezkariak. Gaineratu dutenez, "datozen hileak biziak izango dira, botoa eman aurretik durangarrek informazio guztia mahai gainean izatea gura dugulako",

# Erabilera bakarreko kafe edalontzien ordeztu berrerrabiltzekoak ipini dituzte Durangoko hiru tabernatan

Napozt, Ai Ama eta Gora Gora tabernetan, edalontzi berrerrabilgarrien zerbitzua ipini dute martxan. Edalontziak Irrisarri sareko kafetegietan bueltatu daitezke; Irrisarri proiektuaren bidez, kafetegietan eta tabernetan sortzen diren hondakinak gutxitzea dute helburu

## DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko hiru taberna Irrisarri proiektura batu dira. Napozt, Ai Ama eta Gora Gora tabernetan, eramateko kafe zein infusio bat eskatzerakoan, depositu baten truke edalontzi berrerrabilgarri bat hartu daiteke sareko kafetegietan, eta edalontzia bueltatzerakoan dirua berreskuratzen da. Abenduaren 12tik aurrera dago Irrisarri edalontzia eskatzeko aukera.

Mikel Lupiañez hiru taberna hauetako arduradunak dioenez, "egitasmoak oso harrera ona eduki du. Izan ere, itxiera sasoiaren zarrontziak edalontziz gainezka

ikusten genituen. Behin tabernak zabaldua, baina, kafea tabernan hartzea eskertu du jendeak", dio Lupiañezek.

## Donostiako 6 kafetegietan kartoizko 1.000 edalontzi aurreztu zituzten 6 astean

Proiektua Donostian ipini zuten martxan, orain 8-9 aste. Ander Alvarez ekimenaren arduradunak emandako datuak argi uzten du posible dela tabernekin sortutako

hondakinak gutxitzea: proiektua martxan dagoenetik, Donostiako sei kafetegietan kartoizko 1.000 edalontzi aurreztu dituzte sei astean. "Ekintza txiki batek zein onura ekarri dezakeen ikusteak poz handia ematen du", esan du Alvarezk.

Batez ere, Gipuzkoan dabilta horretan lanean. Donostian, Zarautzen, Zumaiian, Orion... Zubietan ere eskatu dizkiete edalontzi berrerrabilgarriak Realaren entrenamenduetarako. "Ahalik eta sarerik zabalena sortzea da asmoa. Horrela, kontsumitzaileak erraztasun handia izango du edalontzia sareko edozein tabernetan hartu zein itzultzeko".



Napozt tabernan ateratako argazkia.



**GURE  
GARIA**

**GURE  
OGIA**

**EUSKAL  
OGIA**

**GURE GARIA, GURE OGIA  
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN**



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN  
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA  
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN  
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

**DURANGO**

**BIZKARRA - Untxillatx, 3**

**BIZKARRA - Alluitz 8**

**ZORNOTZA**

**BIZKARRA - Gudari, 10**

**PANADERÍAS USUBIAGA - Luis Urrengoetxea, 5**

*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**



# Otxandioko aurrekontuetan hasita dauden proiektuak amaitzeari eman diote lehentasuna

2021eko aurrekontuak diseinatzerako orduan, gastu sozialean murrizketarik ez egotea izan da Otxandioko Gobernu Taldeak kontuan hartu duen beste irizpide bat



Falta den plaza zatia eraberritzea izango da aurtengo inbertsioetariko bat.

## OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandion, 2021era begirako aurrekontuak onartu dituzte Gobernu Taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin. EAJk kontra bozkatu zuen. Endika Garate jeltzaleak ezezkoa bozkatzeko arrazoiak eman ditu. Batetik, Anteparaluzetako bide zatia oinezkoentzako egokitzeko proiektua "lehenetsi" beharko litzatekeela uste dute, beste proiektu batzuen gainetik. Horrez gainera, "ez dute ulertzen" zabor tasak zergatik

igo diren. Sarrerak eta irteerak 2.091.366 eurotan parekatu dituzte aurten. Egoitz Garmendia alkateak aurrekontuak diseinatzerako orduan kontuan hartutako irizpide nagusiak azaldu ditu. "Gastu sozialean murrizketarik ez egoteari eta martxan dauden proiektuak amaitzeari eman diegu lehentasuna", adierazi du.

Mainondoko frontoi azpiko gimnasioa amaitzea da proiektu horietariko bat. Lehenen-

go fasean, gela bat egokitu eta sarrera-irteerak atondu zituzten, irisgarritasun neurrietara egokituta. Aurten, oster, areto nagusia egokitzea da helburua. 87.000 euro bideratu dituzte horretara. Plazako eraberritze

**Aurrekontuetan 87.000 euroko diru atala gorde dute Mainondoko gimnasioan areto nagusia atontzeko dute**

lanak dira bigarren proiektu nagusia. Eta, aurten, hirugarren eta azken fasea gauzatuko dute, 320.000 euroko inbertsioagaz. 122.000 euro Aldundiko diru laguntza bategaz estaliko dituzte. Lehenengo fasean, udaletxetik gertuen dagoen zonaldea eraberritu zuten eta iaz frontoi inguruaren txanda izan zen. Aurten, zonalde bi horien artean dagoen espazioan arituko dira, hau da, plazan bertan. Lanen dinamika aurreko fase bietako berdina izango da: lehenengo, zoruak kendu eta indusketa lanak egingo dituzte; ondoren, gunea estali eta zoru berria ipiniko dute.

## Memoriaren gunea

Urte hasiera honetan, aurrekontuetan aurreikusita dagoen beste egitasmo bat ere gauzatu gura dute. Memoriagaz du zerikusia. 1936an Otxandioko bonbardaketan hildakoen gorpu asko galduta daude oraindino. Udalak agindutako ikerketen —Aranzadi Zientzia Elkarteari, besteak beste— arabera, ematen du bonbardaketan hildako askoren hezurak herriko kanposantuko hobi batean daudela. Hori egiaztatzeko, indusketak egingo dituzte han, elurra urtu bezain laster. Hezurak han aurkituz gero, ez dituzte aterako. Horren ordez, ingurua atondu eta Memoriaren Gunea bat sortuko dute bertan.

## 15 plaza berri egokituta, etxegabeentzako harrera zerbitzua indartu dute Izurtzan

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

15 plaza berri egokituta, Mankomunitateak indartu egin du etxegabeak hartzeko gaueko harrera zerbitzua Izurtzan. Izurtzako elizaren aurrean dagoen eraikina bideratuko dute zerbitzu horretara. Gurutze Gorriak kudeatuko du, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen laguntzagaz. Martxoaren 31ra arte egongo da zabalik

Durangoko azpiegitura, oster, urte osoan egoten da zabalik. Zerbitzua premien hasierako balorazioa eta esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala barne hartzen dituzten gizartezerbitzuekin osatzen da eta bazterketa egoeran dauden Zornotzako, Ermuko, Mallabiko, Durangaldeko Mankomunitateko udalerrietako, Lea Artibaiko eta Lea Ibarako pertsonen eskaintzen zaie, pasoko pertsonen eta etxerik bakoei batez ere.



# Mañariko aurtengo aurrekontuetan 10.000 euroko diru atal berri bat sortu dute alokairua sustatzeko

Adin guztietako herritarrei Mañarian bertan geratzeko erraztasunak ematea da laguntzaren helburua



Aurtengo aurrekontuak aho batez onartu dituzte.

## MAÑARIA • J.DERTEANO

Mañarian onartu dituzte 2021era begirako aurrekontuak. Gobernu Taldeak (EH Bildu) eta EAJk aho ba-

**Aurrekontuetako hainbat diru atalek herriko zerbitzuak indartzea dute helburu**

tez atera dituzte aurrera. 150.000 euro gutxiagoko sarrerak izango dituztela azaldu dute udaletik. Hori kontuan hartuta, sarrerak eta irteerak 825.957 eurotan parekatu dituzte.

Herriko elkarteek diru laguntza kopuru berdinak jasoko dituzte, udalak ohar batean zehaztu due-

nez. Aurrekontuetako nobedade bat da 10.000 euroko diru atal bat alokairua sustatzeko ipiniko dute. Neurri honeguz, herrian bertan geratzeko erraztasunak eskaini gura dizkiete herritarrei. Ordenantza landuta dago, datorren astean Ogasun Batzordetik igaroko da eta laster udalbatzarrean onartzea da asmoa.

Beste hainbat diru atalek herriko zerbitzuak indartzea dute helburu: Herriko taberna eraberritu eta herriko denda sustatuko dituzte, esaterako. Gainera, etxetara sendagaiak banatzeko zerbitzu berria ere martxan ipiniko dute, herritarren artean interesa egonez gero. Gaixotasun kronikoa dutenei edo egunero medikatu behar dutenei bideratutako zerbitzua litzateke.

## Musika, dantza eta antzerkia batzen dituen ikuskizuna Mallabian

### MALLABIA • J.D.

Gabonen harira Mallabian antolatutako ekitaldi sortari gaur emango diote amaiera, *Esnatu naiz* kabaretaren bitar-

**Gaur, 18:00etan, hasiko da 'Esnatu naiz' kabareta, Mallabiko Kontzejuzarrean**

tez. Kontzejuzarrean izango da, 18:00etan. Edukiera 25 lagunetara mugatuta egongo da. Dantza, musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizunaren bitartez, gai askoren gaineko hausnarketak (giza hartu-emanak, aniztasuna...) plazaratuko dituzte.



ZATOZ!  
EZAGUTU  
GAITZAZU

DEITU  
EDOTA  
IDATZI:

[sanjose@durangojesuitak.org](mailto:sanjose@durangojesuitak.org)

EDO

946 81 00 50



*jsu*  
Jesuitak

Durango

KRISTAU ESKOLA

Biharko ametsak, gaurko erronkak



Urrezko Q ziurtagiria

946 81 00 50  
[sanjose@durangojesuitak.org](mailto:sanjose@durangojesuitak.org)  
[www.durangojesuitak.org](http://www.durangojesuitak.org)



# Herritar baten kexa dela-eta, Zaldaik bertan behera utzi du Goiuriako ermitan antolatu gura zuen eskalada txapelketa

Jon Irazabal Gerediagako bazkideak lurretako Udalean aurkeztutako idatzian ermita zaindu beharreko ondarea dela argudiatzen du. Bestalde, ekimena antolatu gura zuen mendi taldeak dio inguruko eskalataileak aspalitik dabilzala bertan eskalatzen eta orain arte ez dutela kexen berririk izan



Goiuriako basiliza.

ipintzeko asmoa dago, Irazabalen esanetan. "2020an ezarri behar zen berriro bere lekuan, baina bizi dugun osasun egoera berezia dela-eta, ezin izan zen asmoa aurrera eraman", dio kexa ipini duen herritarrak.

**Zaldai: "Ingurua eta honen balio kulturalarekiko errespetua sustatu gura izan ditugu"**

## Zaldaien erantzuna

Eskaera horren aurrean, Zaldai Mendi Taldeak txapelketa bertan behera uztea erabaki du. Hala ere, adierazi dute eskalataileek aspalitik erabiltzen duten horma dela, eta orain arte ez dutela kexarik eza-gutu. Txapelketan batutako dirua baselizaren eta inguruaren mantentze eta zaharberritze lanetarako erabili gura izan dutela argitu dute. "Txapelketa honeguz ingurua bera eta honen balio kulturalarekiko errespetua sustatu gura izan ditugu", diote elkartetik.

Horrela, jasotako kexaren aurrean, "ika-mikarrik ez piztearren" eta herrian txapelketa antolatzeko leku aproposik ez dagoela kontuan hartuta, ez dute eskalada txapelketarik antolatuko.

## IURRETA • JONE GUENETXEA

IV. Mendi Astearren barruan, Zaldai Mendi Taldeak Iurretako Bloke Eskalada Txapelketa antolatzeko asmoa zuen Goiuriako baselizaren horman. Baina Jon Irazabal Gerediaga Elkarteko bazkideak idatzi bat aurkeztu du udaletxean,

ekintza hori ez dadila antolatu eskatzeko. Babestutako ondarea izateaz gainera, eskalataileek horma horretan magnesioagaz kaltea eragiten dutela azaldu du Irazabalek. "Kirol jardun honek uzten dituen orbain zuriez gainera, orain urte batzuk eginda-

ko antzeko jardunaldi batean, gure Elizateko arrasto historiko zaharrenetarikoa eta herriko ezaugarri ikonografikorik esanguratsuen den elizaren hormako zutabe bat hautsi zen eskalataile saio batean, XI. mendeko leiho monolitikoaren erdialdeko zuta-

bea, hain zuzen ere", arrazoitu du Irazabalek idatzian.

Leihotik jausitako zutabe zatia "kasualitatez" eskuratu zutela dio Irazabalek. Bilboko Arkeologi Museoan utzi zuten, babeslekurik aproposena zela iritzita, baina bere berezko lekuan, leihoan, berriro

## Olaetxeak zinegotzi kargua utzi du eta Barandallak hartuko du haren lekukoa

Sei urteren ostean, EH Bilduko zinegotziak kargua utzi du

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Legegintzaldi hasieran adostu-takoari jarraipena emanaz, Igor Olaetxeak zinegotzi kargua utzi du eta Josu Barandallak hartuko du haren lekukoa. Barandalla informatika teknikaria eta komunikazioan aditua da. Egun,

Atxondoko EH Bilduko mahai politikoan dabil lanean. Barandallak "ilusioz eta lanerako gogoz" dagoela aitortu du.

### Olaetxea 6 urtean zinegotzi

Igor Olaetxea 6 urtean izan da zinegotzia Atxondoko Udalean. "EAJ gobernuan dagoenetik, Gure Pertsonak batzordea, hain zuzen ere Igor egon den batzordea, ez da batu. Eta gure iritzian lotsagarria da", kritikatu dute EH Bilduko zinegotziek. "Niretzat gabezia izugarria izan da arlo instituzionalean ezin aportatu izana", azaldu du Olaetxeak. "Herrian alarma gorriak pizten diren neurrian, udal batzordeetan lanketa berezi batzuk martxan ipini behar dira, herrikeriekin adosturikoak", esan du.



## Atxondoko Udalak Axpeko elizatik ur biltegira doan bidea asfaltatu du

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak Axpeko bidea, elizatik ur biltegira doan bidea, hobetu eta asfaltatzeko lanak hasi zituen astelehenean. Lan hauen bitartez, lurra fresatu, eta zoladura berria ureztatu eta asfaltatu dituzte, besteak beste. Horrelako lanak eginda, Atxondoko Udalak auzoetako errepideak konpondu gura ditu.

### Auzoetako bideak konpondu

2021eko aurrekontuetan, Atxondoko Udalak 20.000 euroko diru partida gorde du herria osatzen duten auzoetako bideak konpontzeko. Axpeko eliza ondotik ur biltegira doan errepidea konpontzea izan da egin duten lehenengo lana auzoetako bideak atontzeko. Eta partida horretatik egin dute ordainketa.

## Berrizko merkatarien bizikleta elektrikoa 10.445 zenbakiarentzat

Herriko komertzioa bultzatzeko asmoz, Berrizko Merkatari Elkarteko kideek bederatzi sari zozkatu dituzte

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Pandemia sasoiak gogor kolpatu ditu merkatariak, baina Berrizko Merkatari Elkarteko kideek inoiz baino indartsuago irten dute kalera. 2020aren amaieran kanpaina berri bat ipini zuten martxan eta hainbat sari banatu dute euren dendetan erosketak egin dituzten artean.

Berrizko Merkatari Elkarteak antolatutako kanpainak baditu dagoeneko irabazleak, eta zenbaki hauek izan dira sarituak. Lehenengo saria, BH bizikleta elektrikoa eta ekipamendua, 10.445 zenbakiarentzat izan da; bigarren saria, ordenagailua, 15.846 zenbakiarentzat; hirugarren saria, telebista, 4.538 zenbakiarentzat; 500 euroko otzara 3.975 zenbakiarentzat; eta 300 euroko otzarak

15.628, 23.774, 6.189, 19.762 eta 7.845 zenbakientzat.

### BME elkarteak bultzatzea

Kanpainaren bitartez, herritarren artean herriko komertzioa bultzatzeaz gainera, oraindino merkatari elkarteetan sartu barik dauden

**Elkartean sartu barik dauden komertzio eta tabernei bertan sartzeko gonbita egin diete**

komertzio eta tabernak bertan sartzeko ere izan du helburu ekimenak. "Zenbat eta komertzio gehiago izan, orduan eta indar handiagoa izango dutela uste dute.



# "Txertoan esperantza handia dago ipinita"

Rafa Beitia pilotu elorriarra txertoa hegazkinez garraiatzen dabil mundu guztian zehar; oporrak lanean pasatu ditu



Rafa Beitia hegazkin bateko kabinan.

**ELORRIO • JONE GUENETXEA**

Rafa Beitia pilotuak herrialde batetik bestera pasatu ditu Gabonak, hotel batetik bestera. Hegaldi komertzialetako pilotua da. Azken asteetan, hegazkinean orain arte eraman ez duen materiala garraiatu du: koronabirusari aurre egiteko txertoa. Milaka material eta produktu garraiatzen duen arren, ezohikoa da koronabirusari aurre egiteko lehenengo txertoak banatzea munduan zehar. "Txertoan esperantza handia dago ipinita", dio elorriarrak.

Elkarrizketa egiterako momentuan, pilotu elorriarra AEBetan zegoen. Bertan du bere basea, Washingtonen. Koronabirusak gogor kolpatu du inguru hori. "Sekula ere ez dut horrelakorik ezagutu. Egoera latza da", adierazi du. Baina txertoa garraiatzen duenak

txertoa hartu gurako du? Bada, Beitiak dioenez, etorkizunean posible da tripulaziokoei txertatuta egotea eskatzea herrialde jakin batzuetara sartzeko.

Beitiak lanean hasi du urtea. Hala ere, gustura dago. "Abizioa nire ametsa izan da beti. Gogorra izan arren, nigaitik balitz ez nuen sekula ere erretiroa hartuko", azaldu du pilotuak. 38 urte egin ditu hegaldi komertzialetan. Azken 31

**"Sekula ere ez dut horrelakorik ezagutu. Egoera latza da", dio Rafa Beitiak**

urteak AEBetako United Airlines konpainian. Beitiaren anaia pilotari zebilen AEBetan, eta berak ere pilotan jokatu eta kontratu bat lotzea pentsatu zuen. 4-5 urte egin zituen pilotari profesional Floridan. Lortutako diruagaz abizio eskolara joan zen bere ametsa betetzera.

## Elikagai bilketa Elorrión, beharriana dutenei laguntzeko

Gaur 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egingo dute bilketa. Bihar, 10:00etatik 14:00etara

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Elorrioko Udalak eta Zaintza Sareak elikagaiak biltzeko kanpaina antolatu dute urtarrilaren 15 eta 16rako. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, galkorrak ez diren elikagaiak jasoko dituzte.

"Pandemiak areagotu egin du egoerarik zaurgarrienean dauden pertsonen eta familien egoera larria, eta, beraz, unea da erantzuna ematen jarraitzeko eta konpromiso kolektiboa agertzeko", adierazi du Elorrioko Udalak. Bilketa udalak eta Elorrioko Zaintza

sareak antolatu dute. Urtarrilaren 15ean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bilduko dituzte elikagaiak. Eta urtarrilaren 16an, 10:00etatik 14:00etara.

Herritarrek bilketa-kutxetan utzi ahal izango dituzte elikagaiak. Kutxa horiek kanpainagaz bat egin duten herriko establezimenduetan egongo dira; baita herriko plazan ere.

Biltzen diren elikagai guztiak beharriaz handiena duten pertsonen eta familien artean banatuko ditu Kainabera elkarteak.



*"Dudarik gabe gomendatuko genuke Landako eskola"*

**LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA**  
*Hazi, hezi, hegan egin*

**GURE IKASLE OHIEN AHOTSA**

**Ze oroitzen dituzte?**

**Julen Bengoa:** Oso ona. Klasean batez ere txokoak asko gustatzen zitzaizkidan. Irratia entzutea eta telebista egitea ere gustoko nuen. Patiora irtetea ere, ilusioz eta pozez ateratzen ginen. Txokoetan ikasten genuena askotan patioan jartzen genuen marxan, behin banku bat izango balitz bezala aritu ginen eta txanpon eta diru trukaketak egiten genituen matematikako txokotik pasatu eta gero. Patioak eskaintzen zuen espazioa guztiz aprobetxatzen genuen, gune berde handia, zuhaitz asko gogoratzen ditut. Frontoian eskupilotara jolastu... Espazio ireki hori niretzako bizitza zen.

**Txomin Alberdi:** Haur Hezkuntzan ezagutu nuen gaur egun nire lagunik minena dena, eta nire kuadrilla ere hemen sortu nuen, nire ilusioa lagunak ikustea, ikastea eta beraiekin egotea zen.

**Zer nabarmenduko zenukete?**

**T.A.:** Era atsegina batean ikasten genuen eta arinago asimilatzen genituen kontzeptuak metodologia praktikoa iruditzen zitzaigulako. Gainera, motibatuta etortzen ginen eta pozik gelara.

Batez ere gauza desberdinak egiten genituen Amara Berri sistemari esker. Burutzen genituen esperimentuak ditut gogoan. Baita txoko ezberdinetan etorkizun hurbil batean edukiko genituen lanpostuen simulazioa egiten genuen, banketxea, denda, lantegia, bulegoa, astero eskolako aldirakaria argitaratzeko kazetari lana...

**J.B.:** Manipulazioa eta esperimentazioaren bitartez ikasten

genuen eta ez genuen azterketen presio hori nabaritzen. Askotan pentsatu izan dugu, zer dago gaizki? Landako edota beste eskoletako sistema? Argi dago beste modu batean ebaluatu daitekeela.

Azterketak ez egitearena ez da izan inolako oztoporik gure ibilbide akademikoan.

Nik gizarte lana ikasi nuen eta ondoren master bat egin nuen. Gaur egun "Geu be" elkarteak arduraduna naiz.

**T.A.:** Nik 3 goi mailako ziklo ditut eta horretaz gain hizkuntzak asko gustatzen zaizkit.

**T.A.:** Adin nahasketa ere aipatuko nuke nik. Ziklo berria hasten duzunean dena da berria eta zu baino ikaskide helduagoak laguntzen dizute, horretan ikasten duzu eta zikloa bukatzean ezagutza horiek transmititzen dituzte zure atzetik datozenei. Ez zen bakoitzean bere kasa ari, baizik eta laguntasun bat zegoela nabaritzen nuen.

**J.B.:** Txominek esandakoaz gain, lagunak egiten dituzte eta nolabait adinarean rol apurketa bat egoten da, ni nagusia naiz eta zu txikia nolabait harremanak parekatuta geratzen dira, desorekarik gabe. Gaur egun lagun eta harreman asko ditugu adin desberdinetakoak, gazteagoak eta zaharragoak direnak eta horri esker da.

**Gomendatuko zenukete Landako eskola?**

Dudarik gabe gomendatuko genuke Landako eskola.

**Julen:** Pozik etortzen nintzen eskolara, gainera hainbeste denbora pasatu eta gero berriz hemen egoteak zurrara sortzen dit. Gainera urteekin hobera egin du.





# Domeka honetan San Anton eguneko erremata egingo dute Garaiko frontoian

Meza ostean ekingo diote enkanteari. Meza bera ere frontoian egingo dute, 11:30ean



Lazaro Milikuak ekingo ditu errematako bitartekari lanak.

## GARAI • ANBOTO

Garaiko frontoia gertu dago San Anton eguneko erremata tradizionala hartzeko. Urtero Elizaberrin egin izan dute ohiturazko enkantea, baina, aurren, osasun neurriengaitik eliza txiki geratu daitekeela eta, frontoian egitea erabaki dute. "Dagoeneko prest dugu dena, baita hartu beharreko neurriak ere. Eserlekuak bereiztuta ipini ditugu, 70 edo 75 bat. Herritarrak ate batetik sartuko dira frontoira, eta bestetik irtengo dute handik. Horrez gai-

nera, erremata aurkezten diren produktuak poltsa indibidualetan batuta egongo dira", azaldu du Lazaro Milikuak garaitarrak. Berak egin izan ditu azken urteotako bitartekari lanak, eta domeka honetan ere bera ibiliko da produktuen enkatea zuzentzen eta herritarren arteko lehia sustatzen.

## Diru zati bat, Caritasentzat

Ekitaldia domeka honetan izango da. Meza egongo da lehenengo, eta erremata egingo dute gero. Meza bera ere frontoian izango dela aurreratu du Milikuak. "11:30ean hasiko da meza eta amaitutakoan hasiko da erremata", gaineratu du. Aurten batutako diruaren zati bat Caritas elkarteari emango diote. Beste zati bat parrokiarako gordeko dute.

## Politikan

Mireia Elkororibe  
Zenikaonandia  
EAJ



## ONGI ETORRI 2021

Urte berri bat hasten ari gara. Bizi izan dogun azken urte bereziki gogoraren ostean, 2021. urtea itxaropenaz eta ilusioaz hartu dogu.

Urtez aldatu behar genuen itxaropenari eta nolabaiteko ilusioari bide emateko, COVID amesgaizto luzearen amaierara hurbiltzen gaituen txertoaren etorrerak eraginda. Amesgaizto horrek balantze beldurgarria utzi deusku. OMEK emandako azken datuen arabera, 89,6 milioi koronabirus kasu baino gehiago dagoz eta 1,9 milioi pertsona baino gehiago hil dira mundu osoan. Etxera hurbiltzen bagara, zifrak ere ez dira batere lasaigarriak; izan ere, Euskadin 100.000 kasu positibo baino gehiago doguz eta 3.000 pertsona hil dira.

Horrela, txertoaren etorrera ilusio halo bat da, guztiok irrikaz espero doguna. Hurbilago dago amesgaizto honen amaiera. Zaintzen jarraitzeaz gain, gogorlan egin behar dogu ekonomia suspertzeko, enplegua berreskuratzeke eta azken urteetan lortu doguzan ongizate-mailak lehen bai lehen berreskuratzeke.

Helburu horrekin negoziatu dauz EAJ-PNVk Durangoko Udalaren aurrekontuak, oposizio eraikitzaile eta arduratsu batetik. Negoziazaketa bidetik, merkataritza, turismoa eta mugikortasun jasangarria bultzatzera bideratutako partida garrantzitsuak sartzeaz gain, Durangoko bizitza sozial eta ekonomikoaren bihotza izan behar den Merkatu-plaza birgaitzeko konpromiso irmoa ere lortu dogu.

Orain, 2021. urte berri honetan, gogorlan egingo dogu partida horiek behar bezala gauza daitezkan. COVID txertoak gure osasuna babestera lagunduko dauan moduan, EAJ Durango udal taldetik bultzatuko doguzan ekintzak ere gure ongizatea, enplegua eta ekonomia babestera eta bultzatzera zuzendu gura doguzalako.

## Durangaldea asteen

### Andereakek indarkeria matxistaren aurkako kontzentrazioei berrekin die

**Durango** | Andereak Elkartek indarkeria matxista salatzeko elkarretaratzei berrekin zien atzo. Elkarteko kideek azaldu dute emakumeen aurkako indarkeria gizarte osoaren arazo dela, eta Durangoko pertsona guztiei indarkeria desagerrarazteko aktiboki lan egiteko eskatu diete.

### Elorrioko Udala ostalariekin batu da sektorearen egoera aztertzeke

**Elorrio** | Ostalaritzak jasan dituen azken murrizketen ondorioz, Elorrioko Udala herriko ostalariekin batu da euren egoera aztertu eta udalak martxan ipiniko dituen laguntza zuzenen berri emateko asmoz. "Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea gara eta gure esku dagoen dena egingo dugu elorriarren ongizatea bermatzeko", azaldu du Maria Herrero alkateordeak.

### Abadiñoako dendari eta tabernariak diru laguntza berriak eskatzeko aukera dute

**Abadiño** | Abadiñoako Udalak 80.000 euroko partida onartu du koronabirusaren eraginez negozioa itxita izan duten dendari eta ostalariei laguntzeko. 2.000 eurorainoko laguntzak eskatu daitezke eta, Iñaki Rekalde zinegotziak azpimarratu duenez, diru laguntza berri hau bateragarria da 2020aren amaieran Abadiñoako Udalak emandako 1.000 eurorainoko laguntzekin. Dendari eta tabernariak urtarrilaren 27ra arteko epea dute eskaria egiteko.



### "Borrokan jarraituko dugu soldatetan eta pentsioetan generoen arteko aldea desagertzeko"

**Durangaldea** | Gaur, urtarrilak 15, hiru urte bete dira Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak lehenengoz kalera irten zuela. Pentsiodunek hiru urte hauen balorazioa egin dute eta urte hauek "merezki" izan dutela azaldu dute. "Borroka egin dugu eta borrokan jarraituko dugu, besteak beste soldatetan eta pentsioetan generoen arteko aldea desagerrarazteko", azaldu dute pentsiodunek. Horrez gainera, astelehenero mobilizazioak egiten jarraituko dutela jakinarazi dute eta herritarrei bertaratzeko deia egin diete.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

**Egoera berezi honetan**  
**MAKALLAU SALTSAN**  
**KATERIN** zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoan

saltsan.com

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**  
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



# BURUARI KLIK!





# MARGOTU

Beheko irudia nahiago duzun moduan margotu ezazu.







# ITZALAK

















Zein da elur-panpinaren  
itzal egokia?





# DOMINOA

Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.





# DIFERENTZIAK

---

Topatu itzazu hamar diferentziak.





# BIKIAK

Lore bakoitzak bere bikia dauka.



# TOPATU ITZ





# ATZU

Beheko irudian hamabi tximeleta daude.  
Bazara gai denak topatzeko?





# LABIRINTOA







# Gremioen gida

 **Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



[www.leikearoztegia.com](http://www.leikearoztegia.com)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790  
[unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)

 **Iturgintza**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)

 **Iturgintza**

  
**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
[ubide@euskalnet.net](mailto:ubide@euskalnet.net)  
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

**ALDEKOA-OTALORA**  
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA  
INDUSTRI MANTENTZEA

[info@aldekoaotalora.com](mailto:info@aldekoaotalora.com)

Zubiourne, 8 IURRETA  
946 202 768

Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabiloia ABADIÑO  
944 071 791 - 692 859 779

 **Zurgintza**

  
ATERPE AROTZAK  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

 **Dekorazioa**

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
[info@jaiobarnizatuak.com](mailto:info@jaiobarnizatuak.com)  
[www.jaiobarnizatuak.com](http://www.jaiobarnizatuak.com)



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**







## 'BIDEAK' IKUS- ENTZUNEZKOA IURRETA :: Urtarrilak 16

### Ganboaren lanak zabalduko du Iurretako IV. Mendi Astea

Zaldai Mendi Taldeak Iurretako IV. Mendi Astea abiatuko du zapatuan, osasun egoera berriari egokituta. Aritz Ganboa Arruazuko artzainaren kirol erronka erakusten duen 'Bideak' dokumentala eskainiko dute, Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan. Hilaren

23an, Eñaut Izagirreren 'Incognita Patagonia' lanaren txanda izango da. Eta hilaren 29an, Zaldai Mendi Erronka 2020 ekitaldia eta argazki lehiaketaren sari banaketa egingo dituzte. Iurretako Bloke-Eskalada Txapelketa Herrikoia bertan behera uztea erabaki dute.



## Zine- ma

### :: Durango ZUGAZA

• **Manual de la buena esposa**

barikua 15: 19:00  
zapatua 16: 19:00  
domeka 17: 19:00  
astelehena 18: 18:30  
martitzena 19: 19:00  
eguzatena 20: 18:00

• **Vacaciones contigo ... y tu mujer**

barikua 15: 19:00  
zapatua 16: 19:00  
domeka 17: 19:00  
astelehena 18: 17:30/19:30  
martitzena 19: 19:00  
eguzatena 20: 18:00

• **Foto de familia**

barikua 15: 19:00  
zapatua 16: 19:00  
domeka 17: 19:00  
astelehena 18: 17:30/19:30  
martitzena 19: 19:00  
eguzatena 20: 18:00

• **El finks**

zapatua 16: 17:00  
domeka 17: 17:00

• **El finak**

zapatua 16: 17:00  
domeka 17: 17:00

• **Los Croods. Una nueva era**

zapatua 16: 17:00  
domeka 17: 17:00

### :: Elorrio ARRIOLA

• **Nuestros mejores años**

zapatua 16: 19:00  
domeka 17: 19:00  
astelehena 18: 19:00

### :: Zornotza ARETOA

• **El Inconveniente**

zapatua 16: 19:00  
domeka 17: 19:00  
astelehena 18: 19:00

• **Ipuin herriko-berriak**

zapatua 16: 12:00  
domeka 17: 12:00

### Urtarrilaren 15ean

#### BERRIZ musika

**Willis Drumond**,  
17:30ean, Berrizko Kultur  
Etxean.

#### MALLABIA antzerkia

**'Esnatu naiz' kabareta**  
(Andoni Mutiloa),  
18:00etan, Kontzejzarrean.

#### ZORNOTZA antzerkia

**'Tendríamos que haber  
empezado de otra manera'**  
(Ékoma Teatro + Javier  
Liñera), 19:00etan, Zornotza  
Aretoa.

### Urtarrilaren 16an

#### BERRIZ musika

**Licenciado Vidriera**,  
19:00etan, Berrizko Kultur  
Etxean.

#### DURANGO antzerkia

**'Porno vs Afrodita (Edo  
I love #gorkaurbizu)'**  
(Benetan be), 19:00etan,  
San Agustin kulturgunean.

### Urtarrilaren 17an

#### ABADIÑO zinea

**'Dragoiaren gidaria'**  
17:00etan, Errota Kultur  
Etxean. Sarrerak eskuragarri  
Errotan bertan eta Udal  
Mediatekan euro batean.

#### BERRIZ musika

**Travellin' Brothers**  
12:00etan, Berrizko Kultur  
Etxean.

#### ELORRIO antzerkia

**Kottondarrak (Anita  
Maravillas konpainia)**,  
16:00etan, Arriola antzokian.

#### GARAI enkantea

**San Anton Eguneko  
erremata**, meza nagusiaren  
ondoren, frontoian.

### Urtarrilaren 18an

#### BERRIZ antzerkia

**'Erlauntza' (Vaiven  
Produkzioak)**,  
19:00etan, Kultur Etxean.

### Urtarrilaren 20an

#### ABADIÑO ipuin kontaketa

**Oihana Etxegibel ipuin  
kontalaria**. 4tik 5 urtera  
arteko umeentzako saioa,  
17:00etan, udal mediatekan.  
Ondoren, 17:45ean, LHko  
1., 2. eta 3. mailakoentzako  
saioa.

## 'Hnuy Illa' DANTZA ETA ANTZERKIA

Elorrio :: Urtarrilak 15

### Poesia eta dantza uztartuz

Joseba Sarrionandiak euskal literaturan mugarri izan den poema liburua argitaratu zuen 1995. urtean: *Hnuy illa nyha majah yahoo*. Bertan, 1985 eta 1995. urteen artean idatzitako olerkiak biltzen ditu idazle iurretarrak, eta Kukai Dantza konpainiak Elorrioren taularatuko duen

*Hnuy Illa* ikuskizunak liburutik aukeratutako zenbait poesia ditu oinarri. Mikel Laboa maisua izan da Sarrionandiaren poesia musika bihurtzen. Eta Laboagaz batera, haren kide banaezina: Iñaki Salvador. Haien musika izango da ikuskizunaren soinu bandaren oinarria, Ruper

Ordorikaren eta Maria Berasarteren kolaborazioak bilduta.

Elkar komunikatuz, elkar babestuz, poesiak, dantzak, musikak eta irudiak bat egingo dute oholtza gainean. Euskal dantza tradizionalak, gaur egungo izaera nabariagaz, gidatutako ikuskizuna Arriola antzokian izango da ikusgai, 19:00etan hasita.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)

# BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA  
IKASTOLA 



## ESKAINTZA

0 urtetik 18 urtera  
bitarteko hezkuntza eskaintza



## HELBURUA

Ikasle eleanitz, kritiko  
eta euskaldunak



## JANTOKIA

bertokoa, sasoikoa eta  
produktu ekologikoak



# "Gure iritzian, prestatu dugunak badu interesa, bai Willis zaleentzat bai zuzenekoak ikusteko gogoia duenarentzat"

Willis Drummond rock taldeak sasoi berrietara egokitutako emanaldiak prestatu ditu bere bira berrian, kantuen bertzio "lasaiagoekin"

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zortzi hilabeteen zuzenean jo barik egon eta gero, abenduan oholtzetara itzuli ziren 'Garai berezia, kontzertu bereziak' emanaldiekin. Osasun neurrietara egokituriko emanaldi bereziak ondu dituzte. Gaur, Berrizko Kultur Etxean kontzertu bikoitza eskainiko dute. Sarrera guztiak salduta daude. Emanaldi hauetarako, Vincent Bestaven [Petit Fantôme Botibol...] musika-ria batu zaie.

## Gogotsu kontzertuetarako?

Abenduan bira honi ekin genionetik, oso gogotsu gaude kontzertu bakoitzean. Alde batetik, zortzi hilabeteen jo barik egon garelako, eta, bestetik, kontzertu berezi hauetako bakoitzak abentura berrien zirrara hori sortzen digulako. Zuen zuzenekoak elektrikoak izaten dira, energiaz beteak. Askok kostatu zaizue formatu berrira egokitzea?

Geure buruari ezarri diogun desafioa izan da hori, sasoiotara egokitzea. Bagenekien ikusleek eserita egon behar dutela, maskara ipinita, eta ezin dela ohiko kontzertuetako giroa espero; ezta behar ere, osasun egoeragaitik. Beldur ginen gure kontzertuak ez zirelako egokiak izango, eta, beraz, gure kantak moldatu egin ditugu. Ez modu akustikoan, baizik eta modu lasaiago batean. Badira gitarra

**"Soinuekin eta testurekin jolasten ahalegindu gara. Kantuen mamia berdina da, soinua aldatu dugu"**

elektrikoak, eta baita bestelako konponketak ere, pianoa, organoa, ahots jokoak... elektronika puntu bat ere badute. Soinuekin eta testuekin jolasten ahalegindu gara. Kantuen mamia berdina da, soinu aldetik moldatu ditugu.

Zaletuek Willis-en ohiko kontzertu bat espero dute, eta agian



Felix Buff, Xan Bidegain, Jurgi Ekiza eta Vincent Bestaven.

baten bat dezepzionatu zitekeen, baina kontzertuek aurrera egin ahala giroa sortzen da eta pozik irteten dutela esango genuke. Gure iritzian, prestatu dugunak badu interesa, bai Willis zaleentzat bai zuzeneko bat ikusteko gogoia duenarentzat. Musikalki interesgarria da, abestiak aberasten ahalegindu gara eta. Zerbait landua egitea zen helburua, jotzean guk geuk plazera hartzeko, eta baita ikusleak ere ikusterakoan.

## Nondik dator Vincent Bestavenegaz elkarlana?

Gure bateria-jotzaile Felixek Bestavenen bakarkako laneko bateriak grabatu zituen, aurkezpen biran elkarregaz jo zuten, eta aurretik ere Petit Fantôme taldean koin-

tziditu zuten. Gerora, gainerako taldekideon lagun bilakatu zen, eta hori ere garrantzitsua da guretzat. Gainera, gitarra eta pianoa jotzen ditu, ondo abesten du... Horretatik

**"Esker oneko gaude, kontzertuetarako sarrerak agortu egin direlako"**

aparte, bere disko berria prestatzen dabil, eta, beraz, bagenekien libreago ibiliko zela. Proiektu honek hile batzuk iraun ditzake, eta alde horretatik ere ondo. 2020 honetan ikasi dugu ezin dela epe

luzerako ezer pentsatu oraingoz. Hilero ikusten dugu zer egin daitekeen, eta horretara egokitzen gara. Hain zuzen ere, 'Zugzwang' diskoaren bira erdian harrapatu zintuzten pandemiak.

2020ko urtarrilean, Bilboko Kafe Antzokian eta Biarritzeko Atabalen kontzertu bana eskaini genuen, eta gero bost aste kanpoan egon ginen: Japonian, Australian... Handik bueltatu eta gero hasi behar genuen benetako bira Euskal Herrian eta Estatuan, baina bertan behera geratu zen. 'Garai bereziendako kontzertu berezi' hauek prestatu ditugu, Zugzwangeko abestiekin bakarrik ezin genuelako bira egin. Pena bat da, baina beharbada disko horren bira, bere horretan, amaitu

da. Behintzat entseatzeko hasi gara. Aurrera begira ere, ez dakigu zein izango den norabidea. Orain gura dugu ikusi zer egin daitekeen formatu honetan. Baina jendearentzat segurua den momentutik, elektrikoan jotzera bueltatuko gara.

Bestalde, esker oneko gaude, kontzertu guztietako sarrera guztiak saldu direlako, eta, egia esan, ez genuen hori espero. Horrek gogoia eta ilusioa sortzen dizkigu. Kontzertuetako antolatzaileak ere txalotu gura ditugu, kulturaren alde egiten dabiltzan apustuagaitik; orain arte egin ditugun kontzertuetan ere bete egin da aforoa, baina seguruak izan dira, ondo antolatu dituztelako.

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

**#salduenak**

1#



DENDAOSTEKOAK  
Uxue Alberdi  
(Susas)

2#



POESIA, ZAURIEN UKENDU  
Ainhoa Urien  
(Pamiela)

3#



GAUZAK DIRENA BALIRA  
Joseba Sarrionandia  
(Pamiela)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

**#KulturaSeguruDa**



URTARRILAK 29  
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALRIA  
MAIDER ALCELAY  
"Zer gertatzen da basoan?"  
Ordua:  
17:00etan 3-5 urte (lagundurik)  
17:45etan 6 urtetik gorakoak



URTARRILAK 29  
HELDUENTZAKO IPUIN KONTALRIA  
CHARO PITA (Asturias)  
"Bajo la luna a las 19:00h"  
Ordua:  
19:00etan

\*Sarrera gonbidapenarekin izango da, Bibliotekan jaso daitezke.

**Iurreta**  
Elezateko Udala  
HERRI BIBLIOTEKA



# Plateruenerako proiektu berri bat garatzen dabilen herritar talde batek lan saio batera deitu du datorren otsailaren 6rako

Herritar talde batek 'Plateruena ta gero zer?' dinamika aurkeztu du asteen. "Durangarrentzat kulturgintzarako dinamika berri batean murgiltzeko eredu garatzen gabilta", esan dute. Proiektua Durangoko Udalarari aurkezteko asmoa dute, eta aurretik kultur eragileekin batzen jarraitzea gura dute

## KULTURA • J.D.

Plateruena kudeatzeko proiektu berri bat garatzen dabilen herritar talde batek 'Plateruena ta gero zer?' dinamika ipini du martxan. Herrigintzan zein kulturgintzan aritutako durangar batzuek eta Plateruenean bertan azken urteetan kulturgintzan aritu diren kide batzuek osatzen dute lantaldea. "Euskara, kultura eta herritarrak" lirakeke proiektuaren ardatza. "Aurreko proiektuaren ondarea baliatu, akatsetatik ikasi eta Plateruena durangarrentzako kulturgintzarako dinamika berri batean murgiltzeko eredu garatzen ari gara", azaldu dute ohar baten bitartez. Besteak beste, Plateruena kulturagune lez dituen aukerak nabarmendu dituzte, "ostalaritza alde batera" utzita.

Hain zuzen ere, taldeko kideak hainbat kolektibo, eragile eta norbanakogaz batu dira proiektuari buruzko "hausnarketak eta kezak partekatzeko". Durangoko kulturgintzak koordinatzeko eta berau sustatzeko dituen gabezia azpimarratu dute ohar berean. "Durangoko kulturgintzak proiektua koordinatu eta sustatuko duten tresnak behar ditu", gaineratu dute.

## Hausnarketa kolektiboa

Plateruena berrian herritarrak protagonista izatea gura du herritar taldeak. "Herrian diagnostiko kolektibo bat egitea gura dugu,

jakiteko Platerueneraren funtzioak zeintzuk izan beharko lirakekeen hausnarketa kolektiboan sakontzeko", zehaztu dute. Horretarako, taldeak "lan saio bateratu" bat

egitea proposatu du. Otsailaren 6an izango da, Zabalarra eskolan, 10:30ean. Osasun neurriak betetzeko, partaideek izena eman beharko dute [labur.eus/tagerozer](http://labur.eus/tagerozer)

helbidean. "Plateruena berria izango dena ahalik eta parte hartzaileena izatea gura dugu, Durangori ahalik eta ekarpenik handiena egiteko", adierazi dute taldekoek.



'Plateruena ta gero zer?' dinamika martxan ipini duen herritar taldea.

## Gai librea

### Maskarada'21

Metafisika egiteko errezeta emango dizuet. Lehenengo, hitzak poltsatxo batean sartu; barruan daudelarik, ondo-ondo nahastu eta, azkenik, banan-banan atera ahala errenkadan jarri bata bestearen atzean. Voilà! Esaldia osatu da! Errezeta onenak bezalaxe, kopiatua da hau ere.

Poltsatxo hori da norbere burua azken aldion. Eta honako hau bertatik gaur hitzak atereaz sortu den esaldia: Plateruenera tagerozer-eko Zupiria bozemaileak adierazi duenez, Kapitolioko birusak El Boni tirokatu du Baionan, eskola-kirola dela-eta.

Terapia behar dugu esaldiak errenkada zuzenetan antolatze gaitasuna berreskuratu nahi badugu. Halaxe, agian, buruetako lainoak garbituko ditu Filomenak. Ala ez?

Maria Zapatak hitzaldia eman du Gasteizen. Terapia vs politika. Arazoa-



Josune Aranguren Zatika  
Filosofoa

**Agur, Boni; egia esan, zailtzen ari zaigu 60 urte betetzera heltzea rocker izanik.**

**Gel hidroalkoholikoak buruko lainoa garbitzen ez duenez, sanitarioen alkohol kontsumoak gora omen doaz**

ren indibidualizazioa ala arazoaren sozializazioa? Banakako tratamenduan argitasuna topatzeak poztasuna dakarrenez, lainoaren sustrai kapitalista eta patriarkalak gizartekintzatik mozteko beharrik ez dugu?

Ziurgabetasunak, zalantzak eta ez-baiak apatia ekarri dute. Apatia banakakoa, bikotekoa, lagunartekoa, tabernako solasaldietara, telefonozko elkarrikete-

tara, kaleko elkarketetara eta dendetako salerosketetara. Sareetara eta aisialdi kontsumoetara. Eta normaltasun berrira.

Polisa gobernatzen dute hiru arauekin: maskara, distantzia eta aforoa eta eskuen garbiketa. Laino arteko metafisikaren aurkako terapia bezala ez dabil erremedioa, nik uste. Bizirik dirautenen osasuna ere polisa gobernatzen dutenen ardura da. Gel hidroalkoholikoak buruko lainoa garbitzen ez duenez, sanitarioen alkohol kontsumoak gora omen doaz.

Barricada gorenean zegoela, amak Drogasi lantegi batean ganorazko lana bilatzeko esaten zion. Agur, Boni; egia esan, zailtzen ari zaigu 60 urte betetzera heltzea rocker izanik. Jakintsua Drogasen ama. Bitartean, inauteririk ez baina maskarada inoizko populatsuen laino artean. Laino artetik laino artera ongi-etorri, mutazio berri!

Nothing Hill-eko karnabala ospatuko dugu ondorioak deskubritu bitartean.





**Xabier Amorrortu Gallastegi**  
Zintzilik emozioen  
laborategiko kidea  
Elorrio | 1985

## “Soka gainean zaudenean, ohiko arazoetatik deskonektatzen duzu eta momentu magikoa da”

Xabier Amorrortu Alluitz mendiaren gailurreriako Infernu Zubi pasabidearen gainetik soka luzea praktikatzan aritu zen joan zen astean

**MENDIA** • JOSEBA DERTEANO

**Soka luzea edo 'slackline': bi punturen artean soka bat lotu eta haren gainean aurrera-atzera ibiltzean datzan kirola. Definizio horregaz ez dirudi kirol kitzikagarria, baina sokaren azpian 100 metroko amildegia bada go kontuak beste dimentsio bat hartzen du. Xabier Amorrortu soka luzea engantxatuta dago eta joan zen astean Alluitz mendiaren gailurreriako Infernu Zubi pasabidean aurrera eta atzera ibili zen soka gainean. Esperientzia hori afizio bera dutenekin partekatzeke, Zintzilik Emozioen Laborategia sortu zuen iazko udan.**

**Zein da Zintzilik Emozioen Laborategia egitasmoaren filosofia?**

Ez dugu sortu abentura-enpresa baten mentalitateagaz. Filosofia honako hau da: naturagazko errespetutik abiatuta, pertsona eta natura konektatzea, bien arteko zubia erakitzea eta, horren bitartez, emozioei eta sentazioei atea zabaltzea, terapia baten antzera. Ametsei leku bat bilatzeko bitartekoa da Zintzilik. Gainera, denak aske sentituko diren gunea izatea gure dugu, inor ez behartzea ezer egitera, benetan prest sentitzen diren arte.

**Noiztik datorkizu afizioa?**

16 bat urtera arte, kirola futbolagaz lotzen nuen. Orduan, Abadiñoko Gema espeleologia taldeagaz ir-

teten hasi nintzen lehenengo, eta Elorrioko Erdella mendizale taldeagaz gero. Kobazuloen eta mendien munduan murgiltzeak, naturagazko balio berri batzuekin hartu-emanetan ipini ninduen. Ate berriak zabaldu zizkidaten esperientziak bizi izan nituen eta oso esker oneko nago elkarte biei.

**Infernu Zubiko soka soltearen harira: sokak harrietan segurtatzeko prozesua tentu handiz egin beharreko lana izango zela imajinatzen dut.**

Segurtasuna behinena da. Lehenengo eta behin, seguru egon behar dugu anklajeak dauden harriak ez direla apurtuko. Ezagutza bat behar da. Harri desberdinekin probak egin ditugu beste toki batzuetan, eta horrek jakintza bat eman digu. Normalean, lau-bost puntutan segurtatzen dugu soka eta puntu bakoitza 2.000 kiloko pisuari eusteko kapaz da. Beste eginkizun garrantzitsu bat sokak segurtatuko dituen korapiloak egitea da. Korapiloa egiteak erabateko arreta eta kontzentrazioa eskatzen ditu. Ez da lagunari aurreko egunean zer egin zenuen kontatzeko unea. Distrazio guztiak saihestu behar dira. Azken pausoa segurtasun kate osoa ondo dagoela egiaztatzea da, horrek ematen dizu-eta lasaitasuna soka soltea praktikatzeko eta naturagaz konektatzeko.

“

**Soka soltea probatzen duenari bizimodua aldatu ahal zaio; nigaz hasi direnak kirol honetara engantxatuta daude”**

—

**Zenbat bider esan dizute apur bat zorotuta zaudela?**

Askotan. Ezjakintasunagaitik da. Hain justu, kontrakoa da: burua bere lekuan ez bagenu, ez ginen kapaz izango soka horretan ibiltzeko. Gorputzak eta buruak orekatuta egon behar dute.

**Baina ez da denentzako moduko kirola.**

Gauza bat esango dizut. Soka soltea probatzen duenari bizimodua

aldatu ahal zaio. Nigaz hasi direnei eta gerora jarraitu dutenei barru-barruraino sartu zaie kirol hau. Soka gainean zaudenean, zure ohiko bizitzako arazoak alboratu ditzakezu; hobeto esanda, alboratu egin behar dituzu. Denetatik deskonektatzen duzu eta momentu magikoa da. Kontua ez da alde batetik bestera ahalik eta arinen pasatzea. Sentitzen duzun bakea da benetan asebetzen zaituena han gainean zabiltzanean.

**Inoiz ibili zara segurtasun arnesik barik?**

Inoiz bai, baina azpian ura nuela, urtegi batean, jakinda ez nintzela hilko. Ezagutzen dut uhalik barik eta azpian urik barik praktikatzan duen jendea. Ez da edonoiz egin daitekeen zerbait. Esperientzia handia duen batek ere ez dizu sekula esango: "Bihar arnesik barik arituko naiz". Momentuan sentitzen den zerbait da, sentimendu sakon bat.

**Soka soltea ez da mendian praktikatzan duzun kirol bakarra. Bada go beste bat soka jauzia izenekoa, 'puenting'-aren modukoa, baina mendian.**

Urte askotan eta jende askogaz 'puenting'-a egindakoa naiz eta badut lagun bat paraxutista dena. Esperientzia horietan eta espeleologia taldean ikasitakoagaz, eta beste iturri batzuetatik jasotakoagaz probatzea erabaki nuen. Lehenengo soka jauzia Ereñoko harrobian egin nuen eta bigarrena Alluitzen, iazko abenduan. Aspalditik egin gura nuen zerbait da. Toki berriak bilatzen jarraitzen dut.



Xabi Amorrortu, Infernu Zubi gainetik soka luzean, joan zen astean. ZINTZILIK EMOZIOEN LABORATEGIA



**ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO**

Hamar hilabeteen partidu ofizialik jokatu barik egon dira, baina DRTko jokalariei ez zaie errugbian jokatzeari ahaztu. Joan zen asteburuan garaipenagaz ekin zioten denboraldiari, Arrasateren zelaian. Aitzakiarik bako garaipena izan zen: 5-38. Oraindino txispa apur baten faltan, talde lan sendoa oinarritu zuten garaipena.

Taldeak ondo funtzionatu zuten zelaian, eta Santos Regil entrenatzailea gustura dago emandako itxuragaz. "Bagenuen kezka apur bat hainbeste denboraren ostean taldeak zelan erantzungo zuten, baina ondo aritu ginen. Egia da, baita, jarduera ezak talde denei berdin eragingo diela, ez guri bakarrik", azaldu du.

**"Txispa apur bat falta zaigu eta aurkariak nekatu arte landu beharreko partidua izan zen"**

Markagailuak erakusten duen baino partidu gogorragoa izan zen, hala ere. "Antolaketa aldetik eta talde moduan Arrasate baino talde sendoagoa ginela ikusten zen, baina txispa apur bat falta zaigu oraindino eta aurkariak nekatu arte landu beharreko partidua izan zen", gogoratu du. Gainera, eguraldiak jokalarien lana zaildu zuen. Elurra mara-mara ari zuela ibili ziren jokatzeko.

Ligako errugbi taldeek abendu hasieran jaso zuten entrenatzen hasteko baimena. Beraz,

# Durango Nissan Gaurisa garaipenagaz itzuli da lehiara, hamar hilabeteko parentesiaren ostean

Gizonen taldeak joan zen asteburuan hasi zuen denboraldia, Arrasaten, eta 5-38 nagusitu ziren, partidu sendoa jokatu



Arrasate eta Durango Nissan Gaurisa taldeen arteko partiduko une bat, joan zen asteburuan. **GOIENA.EUS**

bost aste eskas izan dituzte liga hasiera prestatzeko. Durangoko taldeak garrantzi berezia eman dio prestaketa fisikoari, lesioak saihestu guran. Eta, oraingoz,

lanak bere fruituak eman ditu. Jokalari batek izandako zaintirtua kenduta, gainerakoek arazo barik amaitu zuten norgehiagoka.

Ligak ez du atsedetik hartuko asteburuan. Durango Nissan Gaurisa Unibertsario Bilboko taldea hartuko du zapatuan, 16:00etan, Arripausetan. Partidu hori atek

itxita jokatu dute, hau da, ikuslerik barik. Horregaitik, partidua Interneten streaming bidez eskaintzen ahaleginduko dira DRTren webgunean ([durangorugby.eus](http://durangorugby.eus)).

## Jokaldia

### Hirugarren denboraren xarma

Badira errugbian kontu batzuk beste kirolekin alderatuz bitxia egiten dutena: baloiaren itxura berezia, zelai barruan dagoen jokalarien kopurua... baina badago errugbi munduan jarduera zabaldua baina aldi berean ezezaguna: hirugarren denboraz ari naiz.

Nagusien norgehiagoketan dutxa hartu ondoren talde biak elkartzeko dira eta garagardo batzuekin batera jateko zerbaitegote da, etxeko taldearen tabernan edo txokoan. Hor hasten da hirugarren denboraren aurreneko zatia, gero talde bakoitzak luzatzen du hirugarren denbora nahieran, eta horiek izaten dira arriskutsuenak. Nire ibilbidean aipatuko nituzke Gernikarrek Urbieta zelaian zein Hernanikoek Landaren duten txokoan eskaintzen zizkiguten hirugarren denbora potenteak; gero, sarritan apro-



Gotzon Gomez Barrenetxea  
Errugbia

**"La Unicaren txokora bueltatu ginenean basurdea afaldu genuen. Imajinatu bueltako bidaia, Urkiolako bihurtu ginen"**

**"Nire ibilbidean aipatuko nituzke Gernikan eta Hernanin ematen zizkiguten hirugarren denbora potenteak"**

betxatzen genuen autobusa Hernani inguruko sagardotegi batera joateko.

Nire ibilbidean bitxikeria ugari izan ditut, baina gehienak taldean gordetzen ditut badaezpada. Hala ere, bi aipatuko ditut. Klubaren hasierako urteetan ingeles batzuk etorri ziren, eta guk harrera egin genien gure tabernan,

pintxoak eta garagardoa hain zuzen ere. Amaitu ostean, gero hurrengo tabernara joan ginenean, Anboto tabernara hain zuzen ere, barran zeuden pintxo guztiak jan zituzten harreraren jarraipena zelakoaren ustetan. Martxundiren aurpegia ikustekoa zen barra hutsik ikusi zuenean. Hurrengo tabernetan ere britainiarrek basati hutsak direla erakutsi ziguten, baina hori beste egun baterako utziko dut.

Bigarren bat Iruñean beterranoekin gertatu zitzaigun, partida ondoren pote batzuk hartu genituen Alde Zaharretik, eta La Unicakoen txokora bueltatu ginenean basurdea jarri ziguten afaltzeko. Imajina ezazue bueltako bidaia autobusean, benetan mortala, batez ere Urkiolatik Mañarirako bihurtu ginen.

Ea behingoz COVIDek sortutako egoera normaltzen den eta taldeek hirugarren denbora egiteko aukera duten.



# DURANGALDE



## Alluitzeko pagoa

Alluitz mendira heldu aurretik, bidean, pago bakarria ikusi daiteke iparreko aldean. Hara helduta, tontorra gertu dagoen seinale da. Egun hauetan itxura eder hau izan du pago bakartiak.



# KO TXOKOAK!

## Alluitzeko tontorra

Alluitzeko pagoa atzean utzita, gutxi falta da gailurrerako (1.034 metro). Azken asteetako eguraldiagaz, tontorreko postontzia elurrez jantzita egon da. Anbotoren mendilerroko txoko ikusgarria da.





**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)

## // AUKERA

**ANBOTO:** 3 logela, komuna eta egongela. Balkoia. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E=E. 176.000 €.**

**MADALENA:** 3 logela eta komuna. Pisu altua. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E =E 179.000 €**

**KURUTZIAGA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E= E. 135.000 €**

**IURRETA:** 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Igogailua. **C.E.E= G. 115.000 €**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**F.J. DE ZUMARRAGA:** 116 m2. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. **C.E.E=F 216.000€**

**BIXENTE KAPANAGA:** 83 m2. 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E=E 174.500 €**

**ELIZALDE:** Apartamentua. Erdi berria. Logela. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garaje itxia. **C.E.E=D 190.000 €**

**ANTSO EZTEGIZ:** 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 249.000 €**

**MASPE:** 126 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela terrazagaz. Ganbara eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E=F 270.000 €**

**MIKELDI:** Apartamentua. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia. **C.E.E=D 190.000 €**

**J.M. ALTUNA:** 3 logela, komuna eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E=G. 215.000 €**

**AMILBURU:** 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m2-ko terraza. Trastelekua. Garajea. **C.E.E= E. 265.000 €**

**SAN AGUSTINALDE.** 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.

**ANBOTO:** 3 logela eta sukalde-egongela. Garaje itxia aukeran. **C.E.E=F 150.000 €**

**ARTEKALEA:** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 198.000 €**

**IURRETA:** MASPE. 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E=F .160.000 €**

**F.J. DE ZUMARRAGA:** 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**

**KURUTZIAGA:** 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 186.000 €.**

**MIKELDI:** Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 160.000 €**

**ABADIÑO:** 1.000 m2-ko lursaila eraikitako baimenagaz. **250.000 €**

**MATIENA:** J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. 2 trasteleku. **C.E.E=E 145.000 €**

**EUBA:** Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**

**MAÑARIA:** Etxebizitzak eta atikoak. Estreintzeko. **125.000 €**

**BERRIZ. BIDEGAIN.** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= F. 205.000 €**

## // LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

**ASKATASUN ETORBIDEA:** Garaje itxia. **24.000 €**

**TRONPERRI:** Garaje itxia. **21.000 €.**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 8.000€-tik aurrera garajeak.

**ABADIÑO:** 160 m2. Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan. **175.000 €**

**F.J. DE ZUMARRAGA:** Aukera. 114 m2. **SALMENTA. 150.000 €.** Negoziagarria.

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Oñiturri kalea. 2 logela, komuna, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara handia.

**DURANGO:** Txibitena kalea. 4 logela. Logela guztiek kalera ematen dute. Komuna, egongela eta despentsa. Garajea eta trastelekua.

**DURANGO:** Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

**DURANGO:** Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

## // ABADIÑO

**ABADIÑO:** Torresolo kalea. 3 logela. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

**ETXEAZPIA KALEA:** Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

## // BERRIZ

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea. // ATXONDO

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## // LURSAILAK SALGAI

**DURANGO:** 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

**GAZTELUA:** 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## // BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ELORRIO:** Araunas auzoa. Baseri eder bat eraikitako. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

**MAÑARIA:** Aldegoina auzoa. 7.500 m2. Baseri ederra, leku lasaia eta baketsua.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MAÑARIA:** Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO:** Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintzeko.

## // BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## // GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## // LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## // LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguesado.com

**DURANGO** 47 m<sup>2</sup>

**ERROTARITXUENA:** 47 m2. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea aukeran + 12.500 €.

**169.900 €.** C.E.E: Bidean

**DURANGO** 2 logela 63 m<sup>2</sup>

**ARAMOTZ.** Lehen 3 logela. Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Laster igogailua ipiniko dute. Garajea aukeran Bizitzen sartzeko moduan.

**129.500 € C.E.E: E.**

**DURANGO** 67 m<sup>2</sup> 2 logela

**SASIKOA:** Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. Argitsua. 28 m2-ko garaje itxia eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua.

**229.000 € C.E.E:E.**

**BERRIZ** 3 logela 79 m<sup>2</sup>

**MAZAGA:** Egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. 40 m2-ko ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Igogailua. Zonalde lasaia.

**124.000€**

**ABADIÑO** 11.200 m<sup>2</sup>

**MENDIOLA AUZO:** 11.200 m2-ko lursail eraikigarria. Bifamiliarra eraikitako aukera.

**225.000€**

**MUNTSARATZ** 3 logela 81,7 m<sup>2</sup>

**Arlozabal:** 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua.

**180.000 €.** C.E.E: E

## //DURANGO

**AMBROSIO MEABE:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **LEHEN 205.000 € / ORAIN 198.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**EZKURDI PLAZA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**

**FRAY JUAN DE ZUMARRAGA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=E**

**MURUETATORRE:** 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitako 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

**TXATXIENA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

## // ABADIÑO

**ZELETABE:** 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**

## // ATXONDO

**ZIARRETA KALEA:** 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

## // BERRIZ

**ANDIKONA AUZO:** Berreraikitako baserria. **460.000 €.**

**BERRIZBEITIA KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

**ERROTATXO KALEA:** 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

**LEARRETA MARKINA:** 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

## // IURRETA

**AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**

**FAUSTE AUZO:** Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzoruagaz. **300.000 € / E.E.Z=G**

**OROKETA AUZO:** 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

## // MATIENA

**TXINURRISOLO:** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. **LEHEN 200.000 € / ORAIN 168.000 € / E.E.Z=F**

**TRAÑABARREN:** 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 210.000 € / E.E.Z=E**

## OTXANDIO

**ARTEKALEA KALEA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

## // BERRIAK

**DURANGO**  
**GOIENKALE KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=G**



## Botikak

<b>BARIKUA, 15 - 09:00-09:00</b>
<b>SARRIA</b> Sasikoa 17, <b>DURANGO</b>
<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ZAPATUA, 16 - 09:00-09:00</b>
<b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>
<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-13:30</b>
<b>SARRIA</b> Sasikoa 17, <b>DURANGO</b>
<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>
<b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>
<b>BAZAN DIAZ</b> Urbarri 5 - <b>DURANGO</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>
<b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>
<b>JAIO-ABENDIBAR</b> Errekakale 6. - <b>ELORRIO</b>
<b>EGUREN, ISABEL</b> Trañabarren 15. - <b>ABADIÑO</b>
<b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-14:00</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>DOMEKA, 17 - 09:00-09:00</b>
<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>
<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>

<b>09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ASTELEHENA, 18 - 09:00-09:00</b>
<b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>
<b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>MARTITZENA, 19 - 09:00-09:00</b>
<b>MUGICA</b> Andra Maria 9 - <b>DURANGO</b>
<b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>EGUAZTENA, 20 - 09:00-09:00</b>
<b>BAZAN DIAZ</b> Urbarri 5 - <b>DURANGO</b>
<b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>EGUENA, 21 - 09:00-09:00</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>
<b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AKARTEKO EPEA



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozaturango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Martin eta Telmo (833. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenen jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, maitia, jada 11 urte, 11 mila musu etxekoan partez. Zoragarria zara eta ez dugu hitzik aurkitzen zaren altxor handia deskribatzeko.



Abenduaren 14 eta 15ean **Garik** eta **Jaionek** urteak egin zituzten! Egun ederra pasau izana espero dogu! Zorixonak Gernike ta Ixurreta-ra familia guztixen partez!



Zorionak, potxola. Oso ondo pasa eguna. Muxu asko familia osoaren partez.



Zorionak, **Aratz**. Urtarrilaren 13an 13 urte egin zituen. Muxu handi bat etxekuen partez.



Urtarrilaren 4an, Oromiñoko **Mila Lauciricak** urteak egin ditu. Zorixonak, amama! Besarkada handi bat!



Zorionak, **Markel**, aitite, amama eta familia guztiaren partez. Disfrutatu egunaz eta jarraitu zaren bezalakoa izaten. Musu handi bat, bihotza.



Zorionak, hirukote! Urte berriarekin batera ospakizunek gure etxean ez dute mugarik, **Intzak** 12 urte, **Iratik** 9 eta **aitatxok** hainbat urte egin dituzte. Inhar eta amatxoren partez musu pilo-pilola!



Zorionak! Oso ondo pasa eguna. Muxu asko familia osoaren partez.

## Eskela



**Egoitz**  
**Uberuaga Aranburu**

II. Urteurrena: 2019 - 01 - 13



Gogorra da zuk utzitako hutsunearekin egunero bizitzea eta hau onartzea; baina etxekoak bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.  
Askio maitte zaittugu!

Mallabian, 2021eko urtarrilaren 15ean

## Eguraldia

ZAPATUA 12° / 4° ☁

ASTELEHENA 13° / 4° ☁

EGUAZTENA 12° / 7° ☁

DOMEKA 11° / 6° ☁

MARTITZENA 13° / 9° ☁

EGUENA 12° / 8° ☁



**Bizkarra**  
Jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO  
Tel.: 946 812 026

Ezin bazara Urkiolara etorri, zaude lasai. Geuk eramango dizugu eguneko menua (11,50 €) etxera. Baita menu bereziak ere. Egin eskaera aurreko egunean, whatsapppez (689802937) edo telefonoz (946812026)



**A. Urreta**  
podologia

**Adinara**  
**Urreta**  
**Jainaga**

**OINETAKO**  
**PATOLOGIAK**  
**NEURRIRA**  
**EGINDAKO**  
**PLANTILLAK**  
**OINETAKO BESTE**  
**HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404



## “Poz handia ematen dit jendea nik sortutako belarritakoekin ikusteak”

Leire Delgado abadiñarrak bitxiak sortzen ditu eskuz, Leile izenpean

**ABADIÑO • AITZIBER BASAURI**

**Leile proiektuak bidea hasi berri du eta Leire Delgado pozik dago orain arte izan duen erantzunagaz. Joan zen irailetik, berak sortutako belarritako eta lepokoak erakusten ditu Instagramen bitartez (@leile\_bitxiak) eta zenbait azokatan parte hartzeko aukera ere izan du hileotan. Abadiñarraren ustez, geroago eta gehiago baloratzen dira eskuz egindako sortzaileen lanak.**

**Noiz hasi zinen bitxigintzarako zaletasunagaz?**

Betidanik izan dut belarritakoe-kiko zaletasuna. Inoiz ere ez dut etxetik irteten belarritakorik barik. Bada, orain pare bat urte materiala erosten hasi nintzen belarritakoak egiteko neuretzat. Konfinamenduan are eta gehiago egiten jardun nuen eta ikusi

nuen piloa nituela, neuk bakarrik erabiltzeko. Ekonomikoki ere ez da oso bideragarria. Gainera, belarritakoek euren esentzia galtzen zutela iruditu zitzaidan. Guragotuen norbaitek erabiltzea, jendeagaz partekatzea. Beraz, lagunei, ezagunei... saltzen hasi nintzen iaz. Apurka-apurka zabaltzen joan da proiektua.

**Zertan oinarritzen da Leile bitxiak? Zelan definituko zenuke?**

Oso urduria naiz eta asko lasaitzen naiz belarritakoak egiten. Beste mundu batean sartzen naiz, ondo sentiarazten nau. Gainera, jendeagaz hartu-eman izateko aukera ematen dit, jende berria ezagutzeko. Horretan oinarritzen da proiektuaren zati handi bat, salmentara mugatu barik. Momentu honetan, zaletasuna dut bitxigintza.

**Zerk inspiratzen zaitu?**

Asko fijaszen naiz jendeak eramate dituen belarritakoetan. Dena dela, barrutik sortzen zait inspirazioa. Materiala erosi eta probak egiten joaten naiz. Egindako belarritakoak desberdinak dira lehenengo begi kolpean, ahalik eta jenderik gehienarengana heldu gura dudalako,

“

**Proiektu hau zaletasun moduan hasi zen, eta horrela jarraitu gura nuke, oraingoz behintzat”**

—

baina esentzia bera dute denek. Diseinu bati jarraitzen diote denek. Egunerokoan erabiltzeko belarri-

takoak sortzea dut helburu, oso erabilgarriak izatea. Proiektu txikia da oraindino. Asko dut ikusteko eta ikasteko, jendearen premiei egokitzeko joateko.

**Denak eskuz egindakoak dira.**

Bai, pazientzia hartuta. Ez da prozesu gatxa, trebezia behar da. Piezak ahokatu egiten ditut, batez ere. Eta, behar denean, estainoagaz itsasten ditut. Materiala topatzea eta aukeratzeko da gaxena. Dena dela, hasiberria naiz oraindino.

**Zeintzuk material erabiltzen dituzu?**

Latoia erabiltzen dut gehien, harri naturalak, plastikoa, erretxina... Edonoren eskura dauden bitxiak egin gura ditut. Dena ondo badoa, baliteke bestelako materialak ere erabiltzea: zilarra, urrea...

“

**Belarritakoak egitean asko lasaitzen naiz. Beste mundu batean sartzen naiz, ondo sentiarazten nau”**

—

**Noraino heldu gura zenuke proiektu honeguz?**

Proiektu hau zaletasun moduan hasi zen eta horrela jarraitu gura nuke, oraingoz behintzat. Administralan lan egiten dut eta ikasten nabil. Ez dut hori alde batera utzi gura. Hala ere, ez dut ezer ere bazterten. Jendeak gustuko izan ditu nik sortutako belarritakoak eta baliteke etorkizun batean modu serio batean jardutea. Ilusio handiagaz hasi naiz. **Harritu egin zaitu belarritakoek izan duten harrerak?**

Pozik nago, espero baino hobeto joan da dena. Ahoz ahokoagaz joan da zabaltzen. Konfinamenduan hasi nintzen neure lanak erakusten, ingurukuen artean. Irailean, sare sozialetan zabaltzen hasi nintzen. Jendeak nigan ipini duen konfiantzak harritu egin nau. Esaterako, Oñatitik lau belarritako desberdin eskatu dizkidate, ni ezagutu barik. Batez ere, Durangaldetik eskatu dizkidate belarritakoak, baina, Gasteiztik eta Getxotik ere bai.

**Zer sentitzen duzu jendea zure belarritakoekin ikustean?**

Poz handia ematen dit jendea nik sortutako belarritakoekin ikusteak. Ilusio handia egiten dit.

### Politikan

Markel Onaindia  
Txabarri  
Kazetaria



### Hibernazioa

Akaso kasualitatea izango da, edo igual nik berez eta inkontzienteki topatutako zerbait: azken hileetan *Lagun izoztua* eta *Cien años de soledad* izan ditut nire ohe ondoko mesanotxean. Sarrionandiaren liburuari bigarren aukera bat emateko gogoan nukan, eta García Márquezena leitu beharrekoen zerrendan zegoen horietako bat zen. Bada, konturatu orduko hor nabilen gizartetik isolatutako lagun izoztuaren azalean lehenik, eta urte luzeetako eurite amaigabearen murgilduta gero. Ez dut uste bizitzen gabiltzan hau baino momentu egokiagorik egongo zenik liburu bietako pertsonaiekin mimetizatzeke.

### Askori eguneroko eta etorkizun hurreko asmoak izoztu zaizkigu

2020a joan da, baina badirudi ez dela guztiz amaitu. Iazko martxoan ez zen udaberri berririk loratu guretzat, negua luzatu zen eta oraindino hortxe gaude, inoizko hibernazio luzeenean. Askori eguneroko eta etorkizun hurreko asmoak izoztu zaizkigu: bizi-planak, bidaiak, bisitak, bazkariak, ekintzak, konspirazio sentimental eta politikoa, gaueko pasiadak... Gero egingo ditugu, gero hori geure begien aurrean ikusten ez den arren. Denbora pasatzen da, baina ez da ezer pasatzen.

Bitartean epeletan egon eta geure burua zaintzea tokatzen zaigu. Irakurriz gozatu eta gero rako prestatu. Ze, espero ez dugun egunen batean urtuko dira izotzak, elurak eta distantziak, eta orduan kobazulotik irtengo gara, hartz baten gose eta indarrarekin mundua jatera.



**Leire Delgado Giraldo**  
Bitxiak egiten ditu  
Abadiño | 1994

**Estetika gida**

anboto

**NUKLEO**  
ileapaindegia  
**946 582 996**  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

Ile-apaindegia

**Ile-apaindegia**

**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
Tel.: 946 216 491